



EUSKADIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDE ARLOKO PLANA

BEHIN-BETIKO ONESPENARAKO DOKUMENTUA

VII. INGURUMEN-LABURPENA



AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. INGURUMEN ALDERDIEN TXERTAPENA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPSREN AZKEN PROPOSAMENEAN	2
2.1 Lurralde eredua.....	2
2.2 Ingurune Fisikoa Antolatzeko Matrizea	3
2.1 Lurralde- garapena kontrolatzeko beste tresna batzuk	3
3. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPSAN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOA, JENDAURREKO INFORMAZIOAREN ZEIN KONSULTEN EMAITZAK ETA INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA NOLATAN KONTUAN HARTU IZANAREN JUSTIFIKAZIOA.....	4
3.1 Ingurumen-azterketa estrategikoaren integratzea, parte-hartze publikoaren eta konsulten emaitzak	4
3.2 Ingurumen-Adierazpen Estrategikoaren integratzea.....	5
4. AUKERATUTAKO ALTERNATIBAREN JUSTIFIKAZIOA	7



1. SARRERA

Ingurumen-laburpen hau Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari (LPS) dagokion ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren administrazio-prozeduraren parte da, indarrean dagoen legediak xedatutakoari jarraiki, *21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa*, *10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena*, *211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena* eta *46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena*.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoa ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen duen tresna da, ingurumen alderdiak plan eta programa publikoen prestaketan eta onarpenean integratzeko aukera ematen duna, ingurunearen babes-maila handia lortu eta garapen jasagarria sustatzearren.

Horrela, ingurumen-organoak, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espedientearen azterketa teknikoa egin ostean, ingurumen-adierazpen estrategikoa egin zuen. Adierazpen hori nahitaezko txosten loteslea da (10/2021 Legearen 74. artikulua), eta azkenean onetsitako planean kontuan hartu beharreko azken neurri edo baldintzak (abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 25.2 artikulua) bertan ezarri ziren.

21/2013 Legearen 26.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, sustatzaileak ingurumen-adierazpen estrategikoaren edukia plan edo programan txertatuko du, eta, alorreko legedian aurreikusitakoari jarraiki, organo substantiboak abian jarri edo onetsi behar izango du.

Lege horren 26.2 b) artikuluan, planaren sustatzaileak honako alderdi hauek kontuan hartuko dituen ingurumen-laburpen bat gehituko du:

1. Nola integratu diren planean edo programan ingurumenari dagozkion alderdiak.
2. Planean edo programan nola hartu diren kontuan ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak (mugaz gaineko kontsultak ere barnean hartuta, halakorik balego) eta ingurumen-adierazpen estrategikoa, bai eta prozesuan sortutako desadostasunak ere, halakorik izanez gero.
3. Hautatutako aukera hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako gainerako aukerekin alderatuta.

Horrela, dokumentu hau ingurumen-ebaluazioari buruzko legeriak eskatzen dituen puntu guztiak erantzuten dituen ingurumen-laburpenari dagokio.



2. INGURUMEN ALDERDIEN TXERTAPENA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPSREN AZKEN PROPOSAMENEAN

Ingurumen alderdiak Energia Berriztagarrien LPSren lehen planteamendu-faseetatik integratu izan dira, eta alderdi horiek "Oinarritzko Dokumentuan", "Aurrerapen Dokumentuan" eta "Behin-behineko onespeneraren aginduan" gehitu ziren jada, dagokion ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren bitartez.

Energia Berriztagarrien LPSren behin betiko bertsioan ingurumen-alderdi horien integrazioari eusten zaio, ingurumen-adierazpen estrategikoak xedatutakoari egokituz. Jarraian, ingurumen-alderdiak Energia Berriztagarrien LPSren azken proposamenean nola txertatu diren azaltzen da laburki:

2.1 Lurralde eredua

Energia Berriztagarrien LPSk, lurralde-plangintzako tresna gisa, ingurumen-aldagaia erdigunean duen energia berriztagarrien lurralde-garapenerako eredu bat ezartzen du, eta baliabidearen kokaleku zehatzaren oso menpeko diren energiei aplikatzen zaie.

Horri dagokionez, Energia Berriztagarrien LPSaren azken bertsioak, instalazio handiak zein autokontsumora bideratutakoak konbinatzen dituen eredu misto bat proposatzen du. Eredu misto hau instalazio bakoitzaren harrera-gaitasunera egokitua dago, horietako bakoitzaren eskala zein lurralde-eragina aintzat hartzen baititu. Beraz, eskala txikiko zein autokontsumoko instalazioak ezartzeko bateragarritasun-araubide malguagoa ezartzen da, eskala handiko eta ertaineko instalazioekin alderatu ezker, azken hauek ingurumen-murrizketa handiak baitituzte.

Hala, eskala ertain zein handiko instalazioei egokitutako lurralde eredu bat txertatzen da, batez ere ondorengoez osaturik dagoena:

- Bazterketa-eremuak: Lurralde-ereduaren oinarri dira, ingurumen-zuhertasunaren printzipioa aplikatuz eta ingurumen-irizpide sorta osoa ezarriz (Naturgune Babestuak, Ingurumen Intereseko Beste Gune Batzuk, Uren Babesa, Ingurune Biotikoa, Paisaia, Kultura Ondarea, Lasaitasun Publikoa), Energia Berriztagarrien LPSren eskalatik, energia berriztagarria sortzeko eskala ertain zein handiko instalazioen garapena ingurumen-faktore horiek babestearekin bateragarria ez dela eta hartara, ingurumen-aldagaia gailenduz, instalazioak horien gain kokatzea debekatzen dela, ulertzen delarik. Bazterketa-irizpide horiek Energia Berriztagarrien LPSren Araudiaren II. Eranskin gisa sartu dira.
- Lurraldearen gaitasuna: baztertze-eremuetan ez dagoen lurralde osorako, honakoak instalazio berriztagarriak hartzeko duen gaitasunaren mailaketa egin da, lurraldearen ingurumen-sentsibilitatea eta aldeko baliabiderik dagoen ala ez abiapuntu hartuta, berriz ere ingurumen-aldagaia zonakatzean txertatuz; azken honek modelatzen du beti lurraldearen hartze-gaitasuna.
- Aukeratutako Kokapen-eremuak (AKE): Energia Berriztagarrien LPSren eskalan, zonakatze positibo bat ezarri da. Zonakatze horretan, ezaugarri jakinak (gaitasuna, baliabidearen presentzia eta bazterketa-irizpiderik eza) dituzten lurzoru-erreserbak identifikatu dira, hain zuzen ere, eskala handiko instalazioetarako lehentasunezko garapen-eremu direnak eta Energia Berriztagarrien LPSra egokitutako eskala dutenak. Eskala ertaineko instalazioetarako, horiek garatzeko ahalmena Lurralde Plan Partzialen (LPP) esku uzten da.

Era berean, Energia Berriztagarrien LPSren araudiak eskala handiko zein ertaineko instalazioak AKEetatik kanpo garatzeko aukera jasotzen du, betiere ingurumen-aldagaiak aintzat dituzten murrizketa batzuk aplikatuz.

Aipatzekoa da zonakatze hori sortze-instalazioei dagokiela, Energia Berriztagarrien LPSren eskalan zonakatu daitezkeen instalazioak baitira; gainerako instalazio osagarriak (bideak, ebakuaziorako instalazio elektrikoak, etab.), berriz, proiektu mailan azertu behar dira, Energia Berriztagarrien LPSk eta haren zonakatzeak dagokionean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa

aplikatzeko beharretik salbuesten ez dutela kontuan izanik. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa proiektuaren alderdi hauek aztertzen dituen ingurumen-esku-hartzerako tresna izango da.

Azkenik, baliabidearen kokalekuaren menpe ez dauden edo lurzoru urbanizatueta kokatzeko bokazio handiagoa duten (Geotermikoa, Orube Termikoa, Biomasa) energientzat ez da zonakatze zehatzik ezarri; aldiz, ingurumen-adierazpen estrategikoak xedatutakoari jarraiki, energia ozeanikoa itsasertz-zerrendako lurzoru urbanizaezin eta ez artifizializatu osoan debekatzea ezarri da, haren garapena AKEtzat hartutako 12 portu autonomikotako egitura artifizialetera mugatuz. Hala, ingurumen-aldagaia erabat integratu eta garapen mota hauek ezartzen diren eremu naturalak zaintzen dira.

2.2 Ingurune Fisikoa Antolatzeke Matrisea

Era berean, Energia Berriztagarrien LPSren araudiak Ingurune Fisikoa Antolatzeke Matrize bat aurkezten du I. eranskin gisa, ingurumen-aldagaia ardatz duena. Horrela, instalazio berriztagarri mota desberdinak ezartzeko aukera lurraren gaitasunaren arabera da (ingurumen-sentsibilitateak baldintzatuta): gaitasuna zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoak dira murrizketak, kasuak kasu, instalazioak garatzeko debeku zuzenak ezarri.

Ingurumen-sentsibilitate handieneko lurzoruetan (Babes Berezia) ia garapen berriztagarri guztiak debekatzen dira, autokontsumorako eskala txikiak izan ezik, instalazioen garapenaren gainetik ingurumenaren kontserbazioa lehenetsiz. Argudio bera erabil daiteke Medi Larreak bezalako lurzoru urrietarako, horietan edozein garapen erabat debekatzen delarik, LPSren eskalatik jada ingurumen-aldagaiaren nagusitasunean eta zona sentikorrenen kontserbazioan eraginez.

Matrizean, haren eskalatik zenbat eta handiagoa izan instalazioaren eragina, orduan eta ezarpen-erregimen murriztatzaileagoa ezartzen da; hala, energia-ekoizpen hutsaren aldean, eskala txikira zein autokontsumorako erregimen malguagoa ezartzen da uneoro. Horrek, hurbiltasuneko instalazioen ezarpena eta garapena erraztuko du, Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko arauak xedatutakoarekin bat eginez.

2.1 Lurralde- garapena kontrolatzeko beste tresna batzuk

Lurralde ereduaz eta Ingurune Fisikoa Antolatzeke Matrizeaz gain, Energia Berriztagarrien LPSren azken bertsioak, ingurumen-alderdiak integratzen dituzten beste tresna batzuk ditu, lurraldeko instalazio berriztagarrien garapen erabat jasagarria lehenesteko:

- Energia berriztagarrien proiektuak diseinatzeko, gauzatzeko eta ustiatzeko jarraibideak: Energia Berriztagarrien LPSren memoriaren I. eranskinean jarraibide batzuk jaso dira, instalazio berriztagarriak diseinatu, eraiki, martxan jarri, ustiatu eta eraisteko jardunbide egoki gisa.
- Instalazio energetiko berriztagarrien proiektuen ingurumen-inpaktuaren azterketa zein ingurumen-dokumentuen gutxieneko edukiak: Energia Berriztagarrien LPSren VIII. dokumentuan biltzen den II. eranskinak proiektu berriztagarrien ingurumen-inpaktuaren azterketaren izapideekin batera aurkeztu beharreko dokumentuek izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du, eduki egokia eta nahikoa eta, hartara, ingurumen-inpaktuaren azterketa sendoa eta bermatzailea garrantzatzeko.

Dokumentu horrek, azken bertsioan, ingurumen-adierazpen estrategikoak gai horri buruz iradoki izandako preskripzio guztiak jasotzen ditu.

Horrela, Energia Berriztagarrien LPSk, bere lurralde-eskumenez gain, proiektuen garapen egokian eragiten du ere, horietan ingurumen-alderdiak erabat integratuz; hala, ingurumen-bektoreetan eragin esanguratsurik ez izatearen bermea areagotzen da.



3. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPSAN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOA, JENDAURREKO INFORMAZIOAREN ZEIN KONTSULTEN EMAITZAK ETA INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA NOLATAN KONTUAN HARTU IZANAREN JUSTIFIKAZIOA.

3.1 Ingurumen-azterketa estrategikoaren integratzea, parte-hartze publikoaren eta kontsulten emaitzak

Energia Berriztagarrien LPSren izapidetzearekin batera, haren ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin da, azken honen gidalerro eta gogoetak LPSren bertsio ezberdinetan txertatuz joanez. Ingurumen-ebaluazio estrategikoari amaiera eman dion ingurumen-adierazpen estrategikoa osorik txertatu da Energia Berriztagarrien LPSren azken bertsioan, 3.2 azpiatalean justifikatzen den moduan.

Halaber, ingurumen-ebaluazio estrategikoak jendaurreko informazioaren, eragindako erakundeei egindako kontsulten eta parte-hartze publikoko prozesuen emaitzak kontuan hartu ditu. Ain zuzen ere, ingurumen-azterketa estrategikoaren IV. eranskin gisa gehigarri espezifiko¹ bat gehitu zen, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte lanean aurretiazko kontsulten emaitza zein irismen estrategikoko dokumentua nola kontuan hartu ziren argitzen zuena.

Ildo beretik, Energia Berriztagarrien LPSren hasierako onespeneren² ostean jasotako alegazio eta txosten guztiei erantzuna emateko dokumentu bat egiteaz gain, horiek Energia Berriztagarrien LPSn aintzat hartu dira.


Azpiarratu behar da ingurumen-ebaluazio estrategikoari aplikagarri zaion araudian ezarritako jendaurreko informazio eta kontsulta faseez gain (*21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 211/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena*), parte-hartze publikorako plan sakona egin dela, ondorengo dekretuarekin bat datorrena: *46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena*.

Horrela, Energia Berriztagarrien LPS onartzeko administrazio-mugarri ezberdinetan 3 parte-hartze fase ezarri ziren:

- Parte-hartze publikoaren 1. fasea: 2021eko maiatza. Guztira 9 tailer egin ziren, 47 agentek eta 109 pertsonek parte hartu zutelarik.
- Parte-hartze publikoaren 2. fasea: 2021eko azaroa. Guztira 7 tailer egin ziren, orotara 383 agente gonbidatu baino gehiagoren artean 54 agentek parte hartu zutelarik.
- Parte-hartze publikoaren 3. fasea: 2023ko maiatza-ekaina. Guztira 8 tailer egin ziren, orotara Euskadiko enpresa-, energia-, elkarte-, aditu- eta erakunde-sektoretako 128 pertsonek parte hartu zutelarik.

¹ https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/proceso_elaboracion_ptseres/es_def/adjuntos/PROVISIONAL-DOC-5-4-EST-AMB-ESTRATEGICO-ANEXO4.pdf

² https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/proceso_elaboracion_ptseres/es_def/adjuntos/respuesta_alegaciones_PTS_EERR.pdf



3.2 Ingurumen-Adierazpen Estrategikoaren integratzea

Energia Berriztagarrien LPSk ingurumen-adierazpen estrategikoaren 6. ataleko mandatua sartu du haren azken bertsioan, ondorengo alderdi hauek gehituz:

INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOKO ATALA 6. LPSRA GEHITU BEHARREKO ZEHAZTAPENAK ETA INGURUMEN KUTSUKO NEURRIAK	ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPSREN AZKEN BERTSIOAREN INTEGRATZEA
<u>6.1. Baztertze-eremuei buruzko neurriak:</u> (...) Ingurumen-sentsibilitate handieneko eremuak benetan baztertzen direla bermatzeko, II. eranskineko taula (egitura eta edukia) zein kartografia berrikusiko dira eta, hala badagokio, birformulatu egingo dira, eskala handiko eta ertaineko instalazioak jarraian zerrendatzen diren eremuetan debekatu daitezen (tipologia zehazten ez denean, horiei guztiei erreferentzia egiten zaiela ulertu behar da). Bestalde, taula horretan "ez baztertua" (zuriz) eta "ez aplikagarria" (beste grafia batekin) irizpideak bereiztea gomendatzen da. Honako irizpide-multzo hauek hartuko dira kontuan (...). Energia Berriztagarrien LPSk, autonomia-erkidegoari dagozkion 21 portuetatik, 12tan energia ozeanikoa aprobetxatzeko egokiak diren eremuak hautatu ditu. Urbanizatu gabeko lurraldearen gainerakoa horrelako instalazioetatik kanpo utzi behar da. Hartara, LPSk soilik instalazio mota horri dagokion AKEen mapa jasotzea eta bazterketa-eremuen mapa kentzea gomendatzen da. (...)	Baztertze-irizpideen matrizea eguneratu da, LPSko I. dokumentuko (Memoria) 12. atala zein II. dokumentuko (Aplikatu beharreko Araudia) I. eranskina ingurumen-adierazpen estrategikoak adierazitako irizpideetara egokitu. Ondorioz, planoak (V. dokumentua) eta zonakatzea eguneratutako baztertze-irizpide horietara egokitu dira. Energia ozeanikoari dagokionez, haren baztertze-mapa ezabatu da eta energia mota hau bazterketa-matrizetik atera da, energia mota honen zonakatzea eta kartografia AKEen zehaztapenera mugatzen delarik.



INFURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOKO ATALA 6. LPSRA GEHITU BEHARREKO ZEHAZTAPENAK ETA INGURUMEN KUTSUKO NEURRIAK	ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPSREN AZKEN BERTSIOAREN INTEGRATZEA
<u>6.2. Aukeratutako Kokapen-eremuei buruzko zehaztapenak.</u> 6.2.1. Oro har, ebazpen honen 6.1 ataleko irizpideen arabera baztertutako eremuekin bat datozen AKEak kenduko dira. 6.2.2. Bereziki, ondorengo AKEak ezabatuko dira (...)	V. dokumentuan (Planoak) aurretik aipatutako bazterketa-irizpide eguneratuekin bat datozen AKEak erabat edo partzialki ezabatu dira.
<u>6.3. Aplikatu beharreko gainerako arauai buruzko neurriak.</u> Jarraian, LPSren aplikazio-arauak aldarazten dituzten ingurumen-prebentzio neurriak aipatzen dira. Arauen idazketan egindako aldaketak ebazpen honen 1. eranskinean jasotzen dira. (...)	II. dokumentua (Energia Berriztagarren LPSren aplikazio Araudia) Ingurumen-adierazpen estrategikoak haren 6.3 atalean eta 1. eranskinean proposatutako edukira egokitu da.
<u>6.4. LPSren esparruan garatzen diren instalazio berriztagarren proiektuei buruzko neurriak</u> LPSk proposatzen dituen ingurumen-integrazioa neurriak beti aplikatuko dira. Ildo berean, nahitaezkoak diren M02 (lurraldearen zonakatzeta), M03 (saturazio-indizea) eta M08 (autokontsumoko instalazioen erregulazioa) neurriez gain, M01 (instalazioak diseinatzeko jarraibideak), M05 (paisaia-integrazioari buruzko gidalerroak), M06 (ingurumen-inpaktuaren azterketen edukia) eta M07 (konpentsazio-neurriak ezartzeko esparrua) neurriak ere aplikatuko dira, haien idazketan ezarritako irismenarekin. <u>6.4.1. Instalazioak diseinatzeko jarraibideak (LPSren Memoriaren eranskina) (...)</u> <u>6.4.2. Ingurumen-inpaktuaren azterketen edukia (ingurumen-azterketa estrategikoaren I. eranskina) (...)</u> <u>6.4.3. Hegazti-faunari buruzko aurretiazko azterlanak (ingurumen-azterketa estrategikoaren I. gehigarriko 1. eta 2. atalak) (...)</u> <u>6.4.4. Kiropteroen aurretiazko azterlanak (ingurumen-azterketa estrategikoaren I. eranskineko 1. gehigarriko 4. atala) (...)</u> <u>6.4.5. Fauna hegalaria jasaten dituen afekzioen ingurumen-jarraipena (ingurumen-azterketa estrategikoaren I. eranskineko II. gehigarria) (...)</u> <u>6.4.6. Paisaia-integrazioaren aurretiazko azterlanak (ingurumen-inpaktuaren azterketaren I. eranskineko III. gehigarria) (...)</u>	Energia Berriztagarren LPSren I. dokumentuaren (Memoria) azken bertsioaren barruan, ingurumen-ebaluazio estrategikoan ezarritako eta ingurumen-adierazpen estrategikoak balioztatutako ingurumen-neurriak jasotzen dituen atala (16. atala) gehitu da. Era berean, VIII. dokumentuaren (Eranskinak) barruan, haien edukia ingurumen-adierazpen estrategikoak xedatutakora egokitzen duten eranskin batzuk sartu dira: - I. eranskina: Energia berriztagarren proiektuak diseinatu, gauzatu eta ustatzeko jarraibideak - II. eranskina: Instalazio energetiko berriztagarren proiektuen ingurumen-inpaktuaren azterketen eta ingurumen-dokumentuen gutxieneko edukiak. II. eranskin honek, halaber, ingurumen-adierazpen estrategikoak eskatutakoarekin bat datozen gidalerroak jasotzen ditu: I. GEHIGARRIA: HEGAZTI-FAUNAREN ETA KIROPTEROEN AURRETIAZKO AZTERLANAK PARKE EOLIKOETAN II. GEHIGARRIA: PARKE EOLIKOETAKO HEGAZTIEN ETA KIROPTEROEN GAINEN AFKIZIOEN INGURUMEN-JARRAIPENA III. GEHIGARRIA: PARKE EOLIKOEN PAISAIA-INTEGRAZIOAREN AURRETIAZKO AZTERLANAK
6.5. LPSren jarraipenari buruzko zehaztapenak (...) 6.5.10. Adierazle hauek gehituko dira (...)	Energia Berriztagarren LPSren I. dokumentuaren (Memoria) azken bertsioaren barruan, ingurumen-ebaluazio estrategikoan ezarritako eta ingurumen-adierazpen estrategikoak balioztatutako Energia Berriztagarren LPSren ingurumen-jarraipena zehazten duen atal bat gehitu da (17. atala).

4. AUKERATUTAKO ALTERNATIBAREN JUSTIFIKAZIOA

Aukeratutako alternatibaren justifikazio-prozesua Energia Berriztagarrien LPSri egindako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduran txertatu da, eta prozedura hori aldeko ingurumen-adierazpen estrategikoarekin amaitu da.

Hala, ingurumen-ebaluazio estrategikoan aurreikusitako LPS egiteko alternatibak honako eszenatoki hauetan oinarritu dira:

Energia berriztagarrien garapen-egoera potentzialei dagokienez:

- a) 0 alternatibaren pareko joera-egoera, hots, garapen energetiko berriztagarria antolamendu eta plangintza egokirik gabe egiten den egungo egoerari eustea.
- b) **Hedapen berriztagarria antolatzeko aurretiazko lurralde-plangintza bat**, energia berriztagarriak ezartzeko lurraldearen sentsibilitate eta harrera-gaitasun desberdinetan oinarrituta, energiaren eta klimaren helburu estrategikoak betetzera bideratuta. Aukeratutako alternatiba da.

Zonakatze-alternatibei dagokienez, honako hauek aztertzen dira:

B.1: Zonakatze globala: Alternatiba honek Euskal Autonomia Erkidego osoan eta lurzoru-kategoria guztietan harrera-gaitasuna zehaztea dakar.

B.2: Lurzoru urbanizaezinera bideratutako zonakatzea: Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen- eta lurralde- balio garrantzitsuenak biltzen ditu, lurzoruaren gaitasunaren arabera.

B.3: Lurzoru urbanizaezinera bideratutako zonakatzea eta antolamendua: lurraldearen harrera-gaitasunean oinarritzeaz gain, Aukeratutako Kokapen-Eremu (AKE) deituriko lehentasunezko garapen-eremuak hautatzen dira, LPSn definitu eta zedarritu daitezkeenak. Aukeratutako alternatiba da.

Bestalde, perspektiba deituriko hiru alternatiba aurreikusten dira:

B.3.1: Energia berriztagarrien garapen intentsiboan oinarritutako ikuspegia, energia berriztagarrien aprobetxamendutik kanpo soilik debeku zorrotzak eta berariazkoak dituzten eremuak uzten dituen.

B.3.2 Ikuspegi jasangarria: Ikuspegi honek energia berriztagarrien garapena bultzatzen du, lurralde bakoitzaren harrera-gaitasuna eta energia berriztagarri mota bakoitzerako ingurumen-balioen berezko kalteberatasunak kontuan hartuta. Aukeratutako alternatiba da.

B.3.3. Ikuspegi kontserbazionista: Kasu honetan, ikuspegi honek energia berriztagarrien garapena oso eremu zehatzetara mugatzen du, instalazio berriztagarrien eragina ingurumen-balio askorekin bateragarria ez dela ulertzen du.

Teknologien eta tipologien arabera ezarpenari buruzko alternatibak:

B.3.2.1: Berrindartze bidezko ezarpen eksklusiboa

B.3.2.2: B.3.2.1 + Energia berriztagarriak ekoizteko instalazioak

B.3.2.3: B.3.2.2 + Autokontsumoko instalazioak: Alternatiba honek ekoizpen-instalazioei autokontsumo-formatua gehitzea ekarriko luke, aurreko alternatiban aipatutako autokontsumoaren onura guztiak txertatuz eta Euskadiko garapen jasangarriko helburuen arloan aurrerapen handia lortuz, bere kabuz lortu ahal izango lituzkeelako, aldi bereko estrategia eta plangintzetan lortu nahi diren instalatu beharreko potentzialen helburuak. Aukeratutako alternatiba da.

Horrekin guztiarekin, proposatutako helburu guztiak betetzea ahalbidetzen duen alternatiba bakarra aukeratutako alternatiba da: B.3.2.3 alternatiba, lurralde-plangintza aktiboko eszenatoki bati dagokiona. Lurralde-plangintza aktibo honek, energia berriztagarrien ezarpena eta natura-zein lurralde-balioen kontserbazioa bateratzeko tresna nagusi gisa, harrera-gaitasuna zonakatzea ez ezik, garapenaren antolamendua ezartzen du ere, lurraldean eragin handiena duten teknologiak (kasu honetan eolikoa eta fotovoltaikoa) bere gain hartzeko gaitasun handiena duten



eremuak definituz eta mugatuz eta, aldi berean, horiek garatzeko jarraibideak ezarriz. Garapen honek gainera, onura ezberdinak dituzten tipologiak aintzat hartzen ditu (indarberritzea + ekoizpen-instalazioak + autokontsumoa), horien konbinaketak proposatutako helburu estrategikoen betetzea ahalbidetzen duelarik.